

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2014/06/03	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 19:45	

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)  
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)  
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)  
Josu Pereda Leceta (BILDU)  
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)  
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)  
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)  
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)  
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)  
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)  
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)  
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)  
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)  
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:** Omer Arregi Biain (BILDU)  
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)  
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)  
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

**BERTARATZE**  
**ETA IRTEERAK:**

Ander Rodriguez Lejarza (BILDU) zinegotzia 18:30etan irten da bilkura gelatik, gai zerrendako 6. puntuaren eztabaidan.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Arratsaldeon eta ongi etorriak guztioi hasiera emango diogu gaurko plenoari.

**1.- 2014KO APIRILAREN 8, 10 ETA 28KO BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko apirilaren 8an, 10ean eta 28an egindako bilkuretako aktak onartu ditu.

**2.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA LOKALA ETXEBIZITZA BIHURTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN TESTU BATERATUAREN ALDAKETA PUNTUALARI (ORDENANTZAREN 9. ALDAKETA.(2014HORD0002)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Hurrengo ekainaren 30ean “HIRI LURZORUKO BIZITEGI EREMU FINKATUETAN LOKALEN ERABILERA ETXEBIZITZARA ALDATZEKO DIREN JARDUNAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA”ren Testu Bateratuaren aplikaziorako epea beteko da.

Hori horrela, Ordenantza horren aplikazioaren inguruko egoera zein den aztertu da eta azterketa horretatik honako hau ondorioztatu da:

.- Egokia da Ordenantza aplikatzeko epea beste bi urtetan luzatzea, alde batetik, Ordenantzan aurreikusitako bere aplikazioa iraungitzeko bigarren suposizioa, ehungarren erabilera aldaketa baimentzearena, ez delako gairitu, eta, bestetik, Ordenantzarekin etxebizitzaren parkea handitu egiten delako, lurzoru berria okupatzeko beharrik izan gabe eta, horrela, Ordenantzaren Zioak Azaltzeko atalean jasotako helburuetariko bat betez.

.- Luzapen hori 2016ko ekainaren 30 arte izango da, beti ere kontutan izanik bere aplikazioa iraungitzeko bigarren suposizioa, ehungarren erabilera aldaketa baimentzearena, mantenu beharko dela.

.- Aurreko eraginetarako beharrezkoa da Ordenantzaren 10. artikulua, *Ordenantzaren aplikazioa iraungitzearen* ingurukoa aldatzea.

Horretaz gain, Ordenantzaren aplikazio eremua zehazten duen 2. artikuluan, hain zuzen, Makatzena auzoan etxebizitzak eraldatzeko egokitzat diren lokalak zehazten dituen atalean, aldaketa puntuala sartzea ere planteatu da, honako xehetasunetan oinarrituz:

- Gaur egun, Makatzena auzoko hainbat eraikuntza REVIVE planaren baitan birgaitzen ari dira. Helburu horrekin burutzen ari diren lanen artean, besteak beste, eraikuntzen irisgarritasuna bermatuko dituen lanak egin behar dituzte.

- Lan horien baitan, Makatzeka 2BIS eraikuntzari bigarren atari bat eraikitzeko asmoa erakutsi dute bizilagunek. Atari berri hori behe solairuan dagoen lokalaren azaleraren zati batean egingo litzateke.

- Atari berri hori eginez gero, lokalak etxebizitza erabilera lortzeko gainontzeko baldintzen gain beste berri bat beteko luke: eraikineko komunikazio elementuen bitartez sartu ahalko litzateke lokalera, alegia.

- Ordenantzaren aplikazio eremuaren arabera, atari berri horretako behe solairuko lokalak, gaur egun, ezin du etxebizitza erabilerarik izan. Bizilagunek proposatutako atari berria eginez gero, ordea, Makatzena 2BIS eraikineko behe solairuko lokala etxebizitza erabilerara eraldatzeko ordenantzak zehaztutako baldintzak bete ditzake.

- Beraz, aipatutako lokala etxebizitza erabilera ahal izateko Ordenantzan aldaketa puntuala jasotzea egokia dela ikusi da.

Goian azaldutakoa kontutan izanik eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Araubidearen gaitan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateratuaren 56. artikuluan, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, xedatutakoaren arabera, hauxe proposatu dio Udalbatzarrari Hirigintza batzordeak:

**I.-** Hasiera batean ontzat ematea “HIRI LURZORUKO BIZITEGI EREMU FINKATUETAN LOKALEN ERABILERA ETXEBIZITZARA ALDATZEKO DIREN JARDUNAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA”ren Testu Bateratuaren Aldaketa Puntuala (Ordenantzaren 9. aldaketa dena), honako artikulua hauei eragiten diena:

***\* 2. Artikulua “Aplikazio Eremua”***

Artikulu hori honela idatzita geratuko da:

**2. Art. í Aplikazio Eremuá**

(...)

Makatzena auzoan etxebizitzan eraldatzeko egokitzat diren lokalak honakoak dira:

Makatzena, 2 behea

Makatzena, 17 behea

Makatzena, 19 behea

Makatzena, 2BIS behea (Beti ere, besteak beste, behe solairuan eraikineko komunikazio elementuak jasoko dituen bigarren atari bat eginez gero).

**\* 10. Art. Ordenantzaren aplikazioa iraugitzea.**

Artikulu hori honela idatzita geratuko da:

**.- 10. Art. ORDENANTZAREN APLIKAZIOA IRAUNGITZEA**

Ordenantza honen aplikazioa baliorik gabe geratuko da 2016ko ekainaren 30ean, eta edozelan ere, Udalak ehungarren erabilera aldaketa baimentzen duenean. Orduan, etxebizitzaren gaiarekin lotutako gorabeherak aztertuko ditu udalak, eta, lokalen erabilera aldaketen esperientzia baloratu ostean, Ordenantzaren aplikazioaz jarraitu edo ez erabakiko du.+

**II.-** Jende aurrean erakustea aldaketa hori, **HOGETA HAMAR EGUNEZ**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara ematen den egunetik kontatzen hasita, egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal izan ditzaten interesatuek.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako paragrafoa, jendaurreko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ezean, Ordenantza behin-betiko onartutzat joko da.”

**3.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA ÍARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZARENÍ 1.ALDAKETA PUNTUALARI. (2014HORD0003)**

Idazkariak Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena irakurri du:

“ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZAREN 1. ALDAKETA PUNTUALA” jasotzen duen dokumentua aurkeztu da, Udal Zerbitzu Teknikoek idatzitakoa.

Aldaketa horren edukia, labur bilduz, honakoa da:

**1.-** Udalbatzarrak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, behin betiko onartu zuen “Arrasaten araupeko aparkalekuaren udal ordenantza”. Ordenantza horrek, hasiera batean, TAO gune bat baino ez zuen zehazten, 1 Gunea (Uribarri-Loramendi), beste gune batzuetako mugak geroago egiteko. Udalaren borondatea zen herriko beste leku batzuetan ere ibilgailuen araupeko aparkalekua ezartzea apurka-apurka.

Hori horrela, Ordenantzaren aldaketaren bidez, gune berri bat mugatuko da, erdialdean, O Gunea – 0.1. azpigunea.

0.1 azpiguneak garai batean Ferixalekuko ikastolako jolastokia zen gunea hartzen du, Amaia antzokiaren eta Uarkape frontoiaren arteko gunea. Ez du atxikirik ezein eraikuntzarik, hau da, Udalak ez du egingo egoiliar txartelik azpigune horretarako.

Kontua da baldintzak erraztea, kontsumitzaileak joan ahal izan daitezen erosten bai udal azokara bai erdialdera. Hori horrela, planteatzen dena da txandakako aparkatze araubidea ezartzea, gehienez ere 90 minutuko egonaldi batekin, eta ezin berriro aparkatu azpigune berean hiru ordu igaro arte. Besdalde, ez da tarifarik ordaindu beharko ibilgailua aparkatzeagatik.

0.1 Azpigunean TAO aplikatzeko planteatzen diren egutegia eta ordutegia honakoak dira: astelehenetik zapatara arte, 8:00-14:00, domeketan, jaiegunetan eta abuztu osoan izan ezik.

**2.-** Beste gai batzuen artean, ohiko egoiliar txartelak emateko kasuak handitzea planteatzen da, ibilgailu baten jabe diren eta elbarritasun motaren bat duten pertsonentzat, nahiz eta ez eduki gida baimenik.

**3.-** Azkenik, salaketak deuseztatzeko ezarritako epea ere handituko da, eta oraingo 24 ordutik 48 ordura pasatuko da.

Ikusirik apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa, toki araubideko arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena.

Hirigintza batzordeak akordio hau hartu dezan proposatu dio Udalbatzarrari:

**I.-** Hasiera batean ontzat ematea “ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZAREN 1GO ALDAKETA PUNTUALA” jasotzen duen dokumentua, honako artikulua hauei eragiten diena:

- 4. Artikulua.- Mugatutako Guneak eta Azpiguneak.
- 6. Artikulua.- TAO aplikatzeko egutegia eta ordutegia.
- 16. Artikulua.- Egoiliarak (ohikoak).
- 20. Artikulua.- Egoiliar txartela lortzea.
- 26. Artikulua.- Salaketak deuseztatzea.

**II.-** Jende aurrean erakustea aldaketa hori, **HOGETA HAMAR EGUNEZ**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara ematen den egunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal izan ditzaten interesatuek.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako paragrafoa, jendaurreko epean erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza behin-betikoz onartutzat joko da.”

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik?

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Arratsaldeon. Lo que no recoge el dictamen es que nosotros votamos en contra la propuesta. Ez duzu irakurri.

Nosotros vamos a mantener el voto en contra porque estimamos, no solo estimamos, sino que además tenemos noticia que lo estima así la asociación de comercios del centro, y creen y nosotros también creemos, que lo que se tiene que hacer es ampliar la zona a la realidad actual del centro no solamente dejarlo en el ferial. Porque además con un horario tan limitado que cuando un ciudadano viene hacer gestiones al centro no se limita hasta las doce hasta la una sino que tanto por la mañana como por la tarde.

Entonces, creemos que la zona habilitada para la OTA del centro se tiene que ampliar, porque ya esta todo estudiado sabemos como funciona ya esta implantada la OTA en otros barrios de Arrasate. Entonces no entendemos que la modificación tiene que llegar mas allá... no solamente porque lo solicitamos nosotros sino como digo lo ha solicitado tambien la asociacion de comerciantes.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Ez gaude batere ados. Gu ere udal gobernuak erdialdeko TAO Amaia antzokiaren ondoko parking txikian soilik jartzea hartu duen erabakiarekin. Bai Arrasateko herritarrak, bai merkatarien Ibai Arte elkarteak denbora asko daramate herrialde osoan TAO bigun bat edo aparkaleku regulatuak jartzearen premia larria salatzen, baina hala ere udal gobernuak probatzen jarraitu nahi du hasteko Unibertsitateko inguruan probatu zuen, eta behingoz TAO erdialdean ezarriko zuela uste genuenean Ferixalekuko parking txikian jartzea bakarrik erabaki du. Gainera, goizeko zortziretatik ordu bietara soilik.

TAO nahikoa probatua ez balego bezala BILDU-Aralarrek osatzen duten udal gobernuarentzat ez da momentua eta proba berri bat egin beharra dago esaten dute. Atzerapen berri honek nori egiten diote onura? Zein interes dago erabaki honen atzean? Arrasate atzean geratzen ari da. Zailtasun txiakiaren aurrean udal gobernu honek beti formula berdina hartzen du paralisisa.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Arratsaldeon. Gu be bat gatoz zuen ideiarekin TAO hedatu egin behar dela herriko hainbat gunetara eta erdialdeko gunera ere bai. Zuek gu bezala dakizue Munar edo Uribarri aldean ematen dien ezaugarriak eta alde zaharrean edo erdigunean ematen direnak zeharo ezberdinak direla. Han dago errealitate bat dela Unibertsitateko eta ikasleak eta beste alde batetik ostalaritzako zona bat eta zona komertzial bat eta erdigunean dagoen errealitatea da beste bat da.

Aparkamentu asko dauz eta froga bat egitea, leku baten froga bat egiteak ez du esan nahi hor geratuko denik. Zergatik jarri dugun ordutegi hori? Uste dugulako herrialdera hurbiltzen den jendeak egiten duena da erdialdera etorri gestioak egiteko eta hasiko gara Ferixalekuko aparkalekutik eta ikusiko dugu errealitatean zelan funtzionatzen duen honek.

Pausoka egitea erabaki dugu ezaugarriak direla eta. Beste alde batetik daukagun baliabide ekonomikoak ikusita Udaltzaingoa izango da printzipioz honen ardurua edukiko duena eta bueno paralisiaren aurrean nik uste dut TAO sistema jarri izan dala, aztertu izan da eta poliki-poliki jartzen ari gara. Orduan paralisia ez dakit nondik datorren. Interesa batere ez daukagu horren atzean, posible izan bazan hasieran jarriko gauen herri guztian eta horren aldekoak be ez zineten, adibidez, erabaki zenean gune baten jartzea Uribarri aldean ados egin zineten, hoin ez zauze ados gune txikia delako gure interesa be bai izango litzake jartzea erdialde guztian baina uste dugu errealitatea hobe dala eta gainera gure baliabideak ikusita ez da derrigortuta baina komenigarria da ipintzea leku konkretu baten eta gero hori hedatzea. Atzean ez gabitz geratzen poliki-poliki goiaz aurrera Juan Karlos ez ezaidazu esan hoin dela hiru urteetatik hona ez dala asuntu horretan aurrera egin.

**JOXE ETXEBERRIA (ARALAR):** Arratsaldeon. Beharbada antzeko ildotik joango naiz. Diktamenean ondo adierazten da jarraitu nahi dugun bidea. Alde batetik Unibertsitate inguruan ezarrita dagoen TAOari egunerokotasunak eskatzen dituen egokitzeak egitea eta bestalde, erdialdean gune berri batekin hasiera ematea udalak dauzkan bitartekoaz baliatuta bai esparru tamainan bai eta ordutegian.

Ferixalekuan dagoen parking txikia zonalde honetarako garapenaren hasieraren parte bat dela ulertu behar da. Gune berria txikia dela badakigu baina egon ziur udal gobernuaren borondatea herriko beste leku batzuetara ere ezartzea dela apurka-apurka.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Guk lehen ere ez gauden ados probarekin Unibertsitate inguruan egin zan proba horrekin ez geunden ados. Uste genuen premia gehien zegoela hemen erdian eta Ibai arteko elkarteak ere noiztik eskatzen zauzen hori. Eta proba moduan esan zenuen orduan han Unibertsitate inguruan egitea nahi zinuela sistema horri buruz hartzeko esperientzia esateko moduan, baina orain badago esperientzi hori eta badaude datu batzuk ekonomikoak ia lortuta eta ikusten da nahiko ondo doala. Orduan proba txiki hori hor oraindik ez dugu hartzen arrazoia. Beste proba bat ez dugu ikusten ganorazkoa.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Guk ikusten dugu azkenean esparru oso desberdinak dira; Unibertsitate ingurua da esparru bat eta erdigunea beste errealitate bat. Hor dagoen parking kopurua partikularrak desberdina da guztiz eta gero beste alde batetik Ibai arten idatzia argudio moduan erabiltzen duzue baina gu ados gauz zabaltzearekin baina pentsatzen dugu hori poliki-poliki egin behar dela eta bide hortatik goiaz eta nik uste dut ondo egiten gabizela eta hobeto diezela gauzak poliki-poliki egitea. Bat-batean baino.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Bestalde be egixa da Uribarri zonaldean ondo doala TAO sistema baina jakinaren gaietan gauz danok zuzentze neurriak hartzen ari garela epe laburretan zuzentze neurriak ikusten dugulako zelabait hartu diran erabaki batzuk moldatu egin behar direla salaketa jartzeko denbora eta ordutegiak eta nola funtzionatzen dauen poliki-poliki zehazten eta hobetzen ari gara

sistema. Orduan ondo doa baina asko ikasten ari gara zona horretan jarri dugun TAOrekin uste dugu Ferixalekuan jarrita be bai askoz hobeto gero egingo dugula hedapena.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Diktamena ONARTUA izan da.**

<b>Bertaratutakoak</b>	<b>17</b>
<b>Aldeko botuak:</b>	<b>11 BILDU (10) eta ARALAR (1)</b>
<b>Aurkako botuak:</b>	<b>6 EAJ-PNV (3) eta PSE-EE (3)</b>
<b>Abstentzioak</b>	<b>0</b>

#### **4.- ESLEIPENAK EGITEA ZERRAJERA ETA UARKAPEN KOKATURIKO HAINBAT LOKAL INORENTZEKO ENKANTEAN.(2012HENK0001)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Plenoak, 2014ko martxoaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroa etorbidea 4-6 zenbakietan eta Txaeta kalea 1 zenbakian kokaturiko udalaren jabetzakoak diren 6 merkataritza lokal eta Uarkape kalea kokatzen diren beste 10 lokal batzuk enkante bidez inorentzeko lizitazioa irekitzea.

Enkantearen helburua da Klausula Administratibo Partikularren Orrian jasotako deskripzioak eta ezaugarriak dituzten lokalak kostubidezko titulu gisa inorentzea. Enkante horren izapidetzan, kontratazio-mahaia 2014ko maiatzaren 28an bildu da, aurkeztutako eskaintzen proposamen ekonomikoak irekitzeko.

Aurkeztu eta onartutako eskaintzak hauek izan dira:

<b>Titularrak</b>	<b>NAN/IFZ</b>	<b>LOKAL ZENBAKIA</b>	<b>Prezioa zerga gabe</b>
TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ	R2800029G	TXAETA KALEA, 1 10 LOKALA	120.000 €
Eva María Aracama Aloa	16.282.445D	UARCAPE, 29 LOKALA	10.000 €



		UARKAPE, 32 LOKALA	23.000 €
--	--	-----------------------	----------

Eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra prezioa izanik, lokal bakoitzerako prezio handiena duten eskaintzak aurkeztu dituzten lehiakideei esleitu behar zaio. Hori horrela, aurkeztutako proposamenak ikusita, esleipen proposamena egin du Kontratazio Mahaiak aurkeztu diren lehiakideen alde.

Aurrekoa dela eta, hauxe proposatu dio Udal Plenoari Hirigintza batzordeak:

**I.- TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVÁ** elkarteari esleitzea Txaeta kalea 1. zenbakian kokatuta dagoen 10. zenbakidun lokala inorentzea, 120.000 €tan, zergak sartu gabe, eta inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriak dioenaren arabera.

Lizitazio prezio horietan ez dago aurreikusita transmisioarengatik ondorioztatuko den zergari buruzko kopurua.

Lokal horren deskripzioa eta ezaugarriak jarraian azaltzen dira:

**“Zerrajera 10:**

Txaeta kalea, 1eko etxabea dagoen merkataritza lokala.

Azalera erabilgarria da 213,96 m<sup>2</sup>.

Mugak: iparrean, zati bat 8 zk.ko lokala eta zati bat Nafarroa etorbidea, 4ari dagokion lokala, hegoaldean, Txaeta kalea, ekialdean, Txaeta, 3ri dagokion lokala, udaleko gizarte zerbitzuetako bulegoak dauden lekuan, eta mendebalean, zati batean Txaeta 1eko etxebizitzaren eraikineko komunikazio bertikaleko nukleoa, zati batean 9 zk.ko lokala eta zati batean 8 zk.ko lokala.

Eraikineko elementu erkideetan %1,981eko partizipazio kuota dagokio.

Destinoa: Ez du destino zehatzik, baina ez da onartzen ostalaritza erabilerarik aldaera batean ere.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetzaren Erregistroan dago inskribatuta, 707 tomoa, 417 liburua, finka zenbakia 21.536, eta horfik egin behar da zatikapena, dagokion salerosketa eskritura sinatu baino lehen.”

Kontratua eskritura publikoa bidez formalizatuko da, inorentzearen adjudikazio akordioa jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Salerosketaren eskritura sinatu ondoren, adjudikatariari itzuliko zaio behin behineko bermea.

**II.- Eva Maria Aracama Aloa** andreari esleitzea Uarkapeko 29. zenbakidun lokala inorentzea, 10.000 €tan, zergak sartu gabe, eta inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriak dioenaren arabera.

Lizitazio prezio horietan ez dago aurreikusita transmisioarengatik ondorioztatuko den zergari buruzko kopurua.

Lokal horren deskripzioa eta ezaugarriak jarraian azaltzen dira:

**“Uarkape 29**

Uarkape kalea, 12-etxabeen dagoen trastelekua izateko edo etxebizitzaren osagarria den erabilera izateko lokala.

Azalera erabilgarria da 16,51 m<sup>2</sup>.

Mugak: iparrean, Jose Luis Iñarra pasealekua; hegoan, etxabeko ezkerreko etxebizitza edo hogeitazazpi zenbakiko zati pribatiboa eta igogailu zuloa; ekialdean, Jose Luis Iñarra pasealekura iristeko eskailera, eta mendebaldean, erabilera publikoko eskalinataren gaineko bueloa.

Eraikineko elementu erkideetan % 0,709ko partizipazio kuota dagokio eta unitate osoan % 0,043ko partizipazio kuota.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetza Erregistroan dago inskribaturik, tomoa 570, liburua 340, Finka zk. 17527.”

Kontratua eskritura publikoa bidez formalizatuko da, inorentzearen adjudikazio akordioa jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Salerosketaren eskritura sinatu ondoren, adjudikatariari itzuliko zaio behin behineko bermea.

**III.-** Eva Maria Aracama Aloa andreari esleitzea Uarkapeko 32. zenbakidun lokala inorentzea, 23.000 €tan, zergak sartu gabe, eta inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriak dioenaren arabera.

Lizitazio prezio horietan ez dago aurreikusita transmisioarengatik ondorioztatuko den zergari buruzko kopurua.

Lokal horren deskripzioa eta ezaugarriak jarraian azaltzen dira:

**“Uarkape 32**

Uarkape kalea, 10-2SS-an dagoen trastelekua izateko edo etxebizitzaren osagarria den erabilera izateko lokala.

Azalera erabilgarria da 36,38 m<sup>2</sup>.

Mugak: iparrean, Oñalora Lizentziaduna kaleko zorupea eta 1 zk.ko trastelekua; hegoan, erdisotoko solairu honetako ezkerreko etxebizitza; ekialdean, 1 zk.ko trastelekua eta zati batean sarbideko korridorea; eta mendebaldean, 4 blokea.

Eraikineko elementu erkideetan % 1,576ko partizipazio kuota dagokio eta unitate osoan % 0,103ko partizipazio kuota.

Merkataritza lokala libre dago karga eta grabamenetatik.

Bergarako Jabetza Erregistroan dago inskribaturik, tomoa 570, liburua 340, Finka zk. 17566.”

Kontratua eskritura publikoa bidez formalizatuko da, inorentzearen adjudikazio akordioa jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Salerosketaren eskritura sinatu ondoren, adjudikatariari itzuliko zaio behin behineko bermea.

**IV.-** Ahalmena ematea Alkate Lehendakariari, edo legez ordezkatzeko duen Alkateordeari, dagokion eskritura sinatzeko eta inorentzea gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen gainontzeko izapideak burutzeko.

**V.-** Izapidetu den enkantea esleitu gabe uztea Baldintza Orrian jasotako gainontzeko 13 lokalei dagokienez.”

## **5.- ÍAUKEAÐKIROL ERAKUNDE AUTONOMOA DEUSEZTATZEKO, ETA KIROL ZERBITZUAK UDALAK BERAK ZUZENEAN KUDEATZEKO AKORDIOAREN HASIERAKO ONARPENA.(2014PBAJ0002)**

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

ÍArrasateko Udaleko Kirol Elkarte Autonomoa (aurrerantzean AUKEA) desegin eta likidatzeko izapidetutako espedienteaz aztertu eta gero.

Udalbatzarrak, 1988ko apirilaren 29an egindako bilkuran, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. artikuluan ezarritakoaren babesean, AUKEA erakunde autonomoa sortzea erabaki zuen, haren estatutuetan zehazten diren helburuak betetzeko, zehazki 3. artikuluan, xedatzen baitu zeregin hauek dituela:

*“a) Arrasate herriko kirol jarduerak sustatzea, ikuspegi zabal batez egiten diren ahalegin eta ekimen guztiak koordinatzeko, erakundeei dagozkien abalmenen kalterik gabe.*

*b) Eskola kirola eta kirolzaleen kirola bideratu eta sustatzea, bereziki egintza hauek eginez:*

- . Psikomotrizitatea eta haur ikaskuntza, gorputz bezkuntzaren bidez.*
- . OHOrako oinarriko gorputz bezkuntzan eta BBBrako kirol ekimenean kolaboratzea.*
- . Haurren kirola sustatzea (eskola- eta kanpoko kirola).*
- . Kirol eskolak egitea.*

*c) Hainbat kirol modalitate egiteko benetako aukera ematea herritar guztiei, interes berezia ipiniz helduen jarduerara fisikoa egin dezaten (denontzako kirola).”*

Ikusiz proposatutako desegiteak hobetzea ekarriko duela zerbitzua emateko orduan behar den eraginkortasunean eta efizientzian, bai eta koordinazio eta prozedura ekonomia handiagoa eta aurrekontuan iraunkortasun eta zorrotasun printzipioen aplikazioa hobea ere, eta, azken batean, Toki Ogasunaren baliabideen aplikazio ezin hobea.

Kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.f) eta 85.bis.2-a) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrari dagokiola zerbitzuen kudeaketa erak onartzea eta erakunde autonomoak sortu, aldatu edo kentzea.

Kontuan izanik erakunde autonomoak kentzeak eskatzen dituela haiek sortu zirenean egindako tramite berberak, udal ordenantzak egiteko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikuluan aurreikusitako prozedura jarraitu behar delarik.

Kontuan izanik, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuz onartutako Toki Udalbatzen Zerbitzuen Erregelamenduko 88.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Udala subrogatu egingo dela erakunde autonomoaren eskubide eta betebeharrak guztietan, hura desegitea erabakitzearen ondorioz.

Kontuan izanik hurrengo ekitaldiko udal aurrekontuan dagozkion betebeharrak estaltzeko behar beste kreditu jarri beharko dela.

Kontuan izanik espediente Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordeak aztertu beharko duela, halaxe eskatzen baitu, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 20.1.c artikulua eta Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Jurikioaren Erreglamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak bere 82, 123 eta 126 artikuluetan.

Idazkaritzaren, Kontu-hartzailetzaren, Pertsonal buruaren eta AUKEAko gerentearen txostenen arabera, eta eztabaidatu eta botazioan jarri eta gero, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordeak, aho batez, akordio hau hartzea proposatzen dio Udalbatzarrari:

**LEHENA.-** Hasiera batean onartzea AUKEA izeneko tokiko erakunde autonomoa desegitea, 2014ko abenduaren 31tik aurrera.

**BIGARRENA.-** Udalak beregain hartuko du kirol zerbitzuaren kudeaketa, 2015eko urtarrilaren 1ean, zuzeneko kudeaketaren modalitatean, Kirolen zinegotzigoari atxikirik.

**HIRUGARRENA.-** Udal honek ordezkatuko du hura, izaera unibertsalez, eta erakunde autonomoa desegin eta gero egin gabe dauden eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatu egingo da.

**LAUGARRENA.-** Kobratzeko dauden eskubideak eta ordaintzeko dauden betebeharrak, abenduaren 31n, udal aurrekontuan sartuko dira.

**BOSGARRENA.-** AUKEAren izenean dauden banku kontuak itxi eta deuseztatzea.

**SEIGARRENA.-** Urtarrilaren 1ean, AUKEA erakunde autonomoko plantila osoa udal plantilan eta lanpostuen zerrendan sartuko da, haien lanbide kategoria, ordainketa mailak, lan baldintzak, antzinasuna, eta abar aintzat harturik.

**ZAZPIGARRENA.-** Urtarrilaren 1ean, haren helburuak betetzeko eta zerbitzua behar bezala egiteko, AUKEA erakunde autonomoari atxiki zitzaizkion udal ondasun guztiak askaturik

konsideratuko dira, eta udal ondareari gehituko zaizkio, bai eta legezko edozein tituluz erosi izan dituen guztiak ere, eta hura desegiteko unean izan ditzakeen baliabideak eta eskubideak.

**ZORTZIGARRENA.-** Desegiteko egunean indarrean dauden obra, zerbitzu, hornidura, hitzarmen eta beste edozein kontratatutik datozen kontratu eskubide eta betebeharrak guztiak bereganatzea.

**BEDERATZIGARRENA.-** Ahalmena ematea alkateari, zuzeneko kudeaketan Udalak bereganatzen duen zerbitzuari atxikitako giza eta material baliabideak eskualdatzeko beharrezkoa diren material operazio guztiak koordinatzeko, eta dagokion gestioak egiteko Foru Ogasunean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean eta egoki den beste edozein erakundetan.

**HAMARGARRENA.-** Ahalmena ematea alkateari, akordio hau formalizatzeko behar diren agiriak eta onarpen aktak sinatzeko.

**HAMAIKAGARRENA.-** Hartutako akordioa jende aurrean jartzea, gutxienez 30 egun baliorduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko ediktu taulan iragarkiak argitaratuz, interesdunek erreklamazioak eta/edo iradokizunak egin ahal izan ditzaten.

**HAMABIGARRENA.-** Aurkeztutako erreklama-zioak eta iradokizunak Udalbatzarrak erabaki beharko ditu, eta, aldi berean, erakunde autonomoa behin betiko desegitea erabakiko du.

Edozelan ere, eta erreklamaziorik aurkeztu ezean, ez da beharrezkoa izango beste akordio bat hartzea; ondorio horietarako, idazkari nagusiak horren egiaztagiria egingo du. Alkateak erabakia emango du eta ordura arte hasiera bateko akordioa behin betiko akordiora jasoko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.”

**6.-Í ENPLEGUA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DOTAZIOAÍ**  
**KONTUSAILAREN BANAKETA EDO EGOKITZAPEN PROPOSAMENA.**  
**(2014DKRE0001)**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2014 ekitaldirako aurrekontuaren proiektuak funts izaerako kontu-sail bat sortu zuen, 350.000 euroko dotazioarekin, enplegua sortu dezaketen jarduerak finantzatzeko. Onartu orduko, oraindik ez zegoen zehaztuta ze laguntza edo ze jarduera mota burutu behar ziren aipatu diruarekin. Horretarako, aurrekontuaren memorian, jarri zen funtsaren zertarakoa (lan kontratazioak, prestakuntza ikastaroak, diru-laguntza programa desberdinak, enplegua sortzeko azpiegituraren finantzazioa, etab.) aztertu eta adostu beharko zela.

Helburu horrekin, Enplegu Batzordeak, beste eragile batzuen (Diputazioa, Lanbide, MU, etab.) laguntzaren izaera osagarriaz, aztertu egin du zeintzuk izan daitezkeen bultzatu beharreko ekintza egokienak. Azterketa lan hori burutu eta gero, 2014ko maiatzaren 21ko datuz, aho batez, diktamen honen bitartez, ondorengo banaketa proposatu zuen:

**“2014ko Enplegua sustatzeko Udal Plana onartzeko Proposamena**

“Egungo krisialdiak eragindako langabeziaren gorakadari aurre egiteko, Arrasateko Udalak enplegua sustatzeko neurri bereziak garatuko ditu 2014an. Horretarako, 2014ko Udal Aurrekontuan kontu sail bat sortuta dago 350.000 € tako konsignazioarekin (1-14-00-226-322-00-99 “Enplegua Sustatzeko Jardueretarako Dotazioa”).

Enplegua eta Garapen Ekonomiko Udal Sailari eskatu zaio honi forma ematea, garatu daitezkeen lerro posibleen esploraziotik abiatuta. Hainbat ideia aztertuta, hauek hobetsi ditu:

1. Udalak herriko langabeak kontratatzea interes publikodun proiektuak garatzeko.
  - Xedea: Herriko langabeak kontratatzea Udalaren ezohiko lanak egiteko.
  - Helburuak: Herriko langabezia arintzea eta interes orokorreko hainbat lan burutzea.
  - Diru konsignazioa: 150.000 p
2. Arrasateko Enpresetan herriko langabeak kontratatzeko diru laguntzak.
  - Xedea: Diru laguntzak ematea Arrasateko langabeak kontratatzen dituzten herriko enpresei.
  - Helburuak: Herriko langabezia arintzea eta enpresen jarduna suspertzea.
  - Diru konsignazioa: 100.000 p.
3. Enplegu Azoka.
  - Xedea: Azoka formatuko ekitaldi publiko bat enpresak eta langabeak bilduko dituen, lana bilatzeko prozesuak errazteko formazio eta informazio saio osagarriekin.
  - Helburuak: Langabeei lana bilatzeko prozesuak erraztea. Enpresei euren pertsonal beharretarako izangai egokiekin kontaktua erraztea.
  - Diru konsignazioa: 50.000 p
4. Titulatu berrientzako bekak enpresetan praktikak egiteko.
  - Xedea: herriko titulatu berriei bekak ematea, ikasketak burutu ondoren praktikak egiteko herriko enpresetan.
  - Helburuak: titulatu berriei lehen lan esperientzia kualifikatuak erraztea; herriko enpresei titulatu berrien gaitasun profesionala ezagutzeko aukera ematea.
  - Diru konsignazioa: 50.000 p.

Gaia aztertu zen 2014ko maiatzaren 21eko Enplegua eta Garapen Ekonomikoko Batzordean, ARALAR, EAJ, PSE-EE, eta BILDUKO ordezkariak bertan, eta aho batez adostu zen hau proposatzea Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENA:** 2014ko Enplegua Sustatzeko Udal Plana onartzea, programa hauek garatzeko:
  - Udalak herriko langabeak kontratatzea interes publikodun proiektuak garatzeko.
  - Arrasateko Enpresetan herriko langabeak kontratatzeko diru laguntzak
  - Enplegu Azoka
  - Titulatu berrientzako bekak enpresetan praktikak egiteko.
- **BIGARRENA:** 1-14-00-226-322-00-99 “Enplegua Sustatzeko Jardueretarako Dotazioa” kontu sailaren 350.000 €ak honela banatzea programen artean:
  - Udalak herriko langabeak kontratatzea interes publikodun proiektuak garatzeko: 150.000 €
  - Arrasateko Enpresetan herriko langabeak kontratatzeko diru laguntzak: 100.000 €
  - Enplegu Azoka: 50.000 €
  - Titulatu berrientzako bekak enpresetan praktikak egiteko: 50.000 €
  -

- **HIRUGARRENA:** *Lau programak garatzeko behar diren oinarri, bitzarmen, edo bestelako tresna administratiboak garatzea eta izapidetzea, bakoitzarentzat egokia den eran eta unean.*
- **LAUGARRENA:** *Erabaki honen berri ematea gainontzeko Udal Sailei.”*

Hori dela eta, kontuan izanik 2014ko aurrekontuaren exekuzio oinarriek ez dutela aurreikusten kontu-saila egokitzeko formula edo baimen berezirik (izaera teknikoko aldaketa bezala izapidetzea edo horiei buruzko aldaketak Tokiko Gobernu Batzarraren eskuetan utzi, adibidez), beharrezkoa da kreditu aldaketaren espedientea Udalbatzarrak onartzea. Aldi berean, Ogasun Batzordearen ustez, hobetsitako lerro desberdin horietatik soberakinak lortuko balira, beste beharretara bideratzeko aurrekontuko oinarrietan mekanismo azkar bat aurreikusi behar dela, Tokiko Gobernu batzordearen eskuetan uztea, Enplegu Batzordearen proposamenaz, hain zuen ere.

Guzti hori kontuan hartuta, Ogasun Batzordeak, aho batez, Udal Batzarrari ondorengo akordioa hartzea proposatzen dio:

1.- 2014ko aurrekontuaren kreditu aldaketa onartzea, horren bitartez “1.1400.226.322.00.99- Enplegua sortzeko jardueretarako dotazioa” kontu-sailaren kontsignazioa, 350.000euro, transferitzea kontu-sail horietara:

- “1.1401.131.322.00.00-Enplegua sustatzeko aldi baterako lan kontratazioen ordainsariak” kontu-sailera 109.369,91 euro, eta “1.1401.160.322.00.01- Enplegua sustatzeko aldi baterako lan kontratazioen Gizarte Asegurantza” kontu-sailera, 40.630,09 euro, guztira lan kontratazioetarako 150.000 euro (aurrekontuetan aurreikusita zegoen 348.272,43 euroko dotazioaz gain).

- “1.1400.471.721.00.00 - Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzekeo dirulaguntzak” kontu-sailera 100.000 euro.

- “1.1400.226.322.01.00 – Enplegu azoka” kontu-sailera 50.000 euro

- “1.1400.480.721.01.00 – Titulatu berrientzako beka enpresetan praktikak egiteko” kontu-sailera 50.000 euro.

2.- Enplegu Batzordearen proposamenaz, ahalmena ematea Tokiko Gobernu Batzarrari onartzeko lau kontu-sail horietan sortu daitezkeen soberakinak enpleguaren sorrerarekin zerikusia izan dezaketen proiektuetan edo ekintzetan erabiltzeko.”

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Langabezia dauka Arrasaten aurre egiteko behar handienetako bat eta gainera lehentasuna eta neurri hau gure taldeak lehenengotik legealdi eskaera eduki dugu enplegu sustatzeko jardueretan dotazio lehengo urtean, eta bigarren aurrekontuetan ez zen posible izan baina hirugarrenean bai eta eskertzeko da udal gobernuari prestatu delako langabezia legealdi hau hasi ginean %12an zegoen eta oraindik %16 gora doiaz eta oraindik gora jarraitzen du. Horregatik ondo

etorrita dago prestazio.

Beste alde batetik Alkateak Ahaldun Nagusiarekin eta Berrikuntzaako Diputazioekin oraintzu eman zuen prentsurrean arira falta bota genuen gure ekimen hau ez sartzea. Guk alderdia bai oposizioan gauz baina Arrasateren alde ekintzak gabitz proposatzen eta ordenatzen gabitz eta aurrekontuetan ere aurtengo aurrekontu honetan be zazpi eskaeratik be sei onartu zuen gobernuak eta horregatik BILDU-Aralar taldeak bere buruari bakarrik jarri dizkio aurrekontuetan kopuru hau egotearen medaila hartuaz.bestalde, diru ekarpenarekin ez da nahikoa, ekarpen honeaz ez da nahikoa lan sustapena aktiboki bultzatu beharra daukagu aurrekontu guztia agortu arte. Urte bukaeran dirua sobratzen bada udal gobernu helburua lortzeko gai izan ez delako izango da. Hori da gure ardura.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bakarrik puntualizazio bat. Esaten duzu diru hori ez dala nahikoa: gogoratu bakarrik Eusko Jaurlaritzak ipintzen dauena kasu honetan dela 100.000 euro inguru eta beste dena ipintzen dugula Arrasateko Udalak 400.000 €. Nik uste dut erantzukizuna eskatzerakoan eskatu behar duzuela Eusko Jaurlaritzari. Bera da zuzenki enpleguari buruz kompetentzia daukana. Orduan gaur egun gabizen esfortzua egiten izugarria da Arrasateko udaletxean.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Nik gureko nuke esatea baietz gu oso pozik gauzela proiektu honekin eta ekimen honekin eta oso pozik Eusko Alderdi Jeltzalearekin egindako akordioarekin gai honen inguruan eta uelrtzen dugu proiektu honek daukan ildo desberdinak enplegua sustatuko dutela eta enplegatu horrek aldi berean be bai aberastuko dabiela herria eta herrian ematen dien zerbitzuak eta edukiko du onura retroaktibo bat herrixan eta bailaran suposatzen dut be bai.

Ez arduratu honen proiektu honen oihartzuna bere momentuan egingo da eta edukiko dau bere protagonismo propioa eta ez dut uste ahaztuko garenik zuetaz ze azkenean akordioa baten baitan eman dana baina bere momentuan ikusiko duzu zelan medailak guk bakarrik ez dirugun jarriko. Ez dalako gure estiloa beste alde batetik.

Diru ekarpena, Inazioak esan dauen bezala, oso inportantea da baina ezin geike ahaztu kompetentzia hau Eusko Jaurlaritzarena dela eta guk izaugarritzko esfortzua egin dugula hemen sarzteko eta zuek badakizue. Orduan, Inazioak esaten dauen harira erantzukizuna eskatzea baldin abda asuntua begiratu behar da apurtxu bat Urkulluren etxera eta beste alde batetik , dirua sobran egon bazan beste gauza bat izango zan baina gure etxe honetan dirua ez dago sobran , orduan mas bien faltan dau eta badakigu danok hemen jarrita gazenok.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Nik uste dut txarto interpretatu duzuela, nik ez dut esaten dirua nahikoa dan edo ez dan nahikoa. Nik esaten dotena da aktiboki landu egin behar dela hau dirua jartzea bakarrik ez da nahikoa. Dirua urte bukaerako eduki leikegu sobra ez dalako diru hori gastatu edo behintzat inbertitu hortan. Hori da zera horretarako aktiboki sustau egin behar dugula hori zer hori da. Diru hau jarri dana urte bukaeran dana kontsumitu bada esateko orduan esan leike gauzia ondo joan dela eta hurrengo urterako be baina aktiboki landu behar dela hori bakarrik arduria hortik



dator.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** A ver Juan Karlos, aktiboki landu dugu eta zuekin adostasun batera ailegau gara ez da kopuru bat jarri dugula eta kopuru horri buruz hitz egiten gabizela. Lau lerro zabaltzen ditugu lau lerro, hiru berriak diezenak nik uste dut hor dagoela lanketa eta hor dauela esfortzua eta gu irtetzea normala dela irtetzea eta honi bonbo ematea nik uste dut eredugarria dela beste udaletxe batzuekoko gai hau ze lau lerro diez hiru berriak. Enpleguaren azoka sekula ez da egin udaletxe honetan beken asuntua sekula ez da egin udaletxe honetan eta sustatzea lana enpresetan kontratuak egiterakoan hori be sekula ez da egin etxe honetan. Orduan nik uste dut esfortzua izugarria dela eta oso garrantzitsua eta gainera zuekin adostatutakoa da.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Enplegu azoka iaz be egin zan unibertsitatean

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Arrasateko Udaletxeak sekula bez.

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Arrasateko Udaletxeak laguntza barik laguntza horrekin aurten hori bai. Baina esaten dutena da oraindik aurrera hau onartuta eta gero hemendik aurrera urtean dala jarraipen gogorra egin beharko dugula haber diru jarri duguna aurrera ateratzeko eta berorren prestazioak behintzat bereziak izateko hori da asuntua ezta?

## **7.- 2014 URTEKO AURREKONTUAN GASTU-ERREGELA EZ BETETZEAREN BERRI EMATEA UDALBATZARRARI.(2014RBAR0023)**

Idazkariak irakurri egin du Ogasun Batzordearen ondoko diktamena, Kontuhartzaileak aurkeztu duen Txostena osorik jasotzen duena, eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

“2014ko ekitaldiko Aurrekontu nagusia onartzean gastu erregelaren helburua betetzeari buruzko Kontu-hartzailearen Txostenaren berri ematen dio Ogasun Batzordeak Udalbatzarrari:

Udalbatzak 2013ko abenduaren 26an egindako bilkuran, 2014ko Aurrekontu Orokorra onartu zuen. Aurrekontua onartzeko orduan, Udalak bete zituen 1/2013 Foru Arauak, Toki entitateen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren alorretan finantza Tutoretzaren eskumena garatzen duena, eta 2103ko azaroaren 19an Diputatuen kontseiluak onartutako jarraibideek 2014 ekitaldirako finkatutako helburuak, aurrekontu egonkortasuna, zorra eta gastu erregela helburuei dagokienean.

Bestalde, aipatu araudiak ezartzen du helburu horien betetze maila egiaztatu behar dela, aurrekontu onartzean, aldatzean eta likidatzean. Hori dela eta, behin Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartu eta gero, berriro neurtu dira helburuen betetze maila.

Azterketa horren ondorioz (likidazioari buruzko txostenean azaltzen dena) esan daitekeena zera da:

- Udalak 2013ko gastu eta sarreren likidazioko datuak, 2012ko benetako gastuekin eta 2014 ekitaldirako aurreikuspenekin alderatzen badira, 2013ko datuek 2012koekiko helburu guztiak eta 2014koekiko Egonkortasunaren eta zorraren helburuak betetzen badira ere, **2014ko gastu erregelarena, ordea, ez da betetzen, %1,5eko gehieneko hazkundearen barruan jardun beharrean %1,92 handitzen dela.**

Beraz, Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko 2014rako jarraibidearen 3. erregelak ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek (Aukea eta Iturbide Egoitza), gastuaren erregela ez dutenez betetzen, finantza eta ekonomia plana egin eta onartu behar dute, egoera urtebeteko epean zuzenduko dela bermatuko duen plana, hain zuzen ere.

Hala ere, Udalbatzarrari Kontuhartzaitzak izenpetutako komunikazio bat helarazi ahal dakioke planaren ordeztu, Arrasateko Udal Administrazioaren finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duen txosten batekin batera, baldin eta, aldi berean, ondoko baldintza hauek betetzen baditu:

- 2013ko aurrekontua likidatua edukitzea, edo hori izan ezean, bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2014rako defizitaren eta zor publikoren helburuak betetzea.

Hori dela eta, Udala egoera horretan aurkitzen den edo ez, ondorengo azterketa egin behar dela:

**a.- Arrasateko Udal Administrazioaren finantzari buruzko jasangarritasunaren azterketa eta ebaluazioa.**

### **1.- Aurrekontu-egonkortasunaren helburua.**

Ondorengo lauki honetan, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen 2014ko aurrekontuetako diru-sarreretan eta gastuetan dauden egoera bateratuak jasotzen dira.

## DIRU-SARRERAK.

## GASTUAK.

KAP.	Izena:	Zenbatekoa	KAP.	Izena:	Zenbatekoa
1	Zuzeneko zergak.	7.792.500,00	1	Pertsonala edo Langileria	10.899.728,95
2	Zeharkako zergak.	550.001,00	2	Ondasunak eta zerbitzuak erosi.	13.199.305,15
3	Tasak eta prezioak	8.564.250,00	3	Interesak	65.275,93
4	Trans. arruntak.	15.487.768,15	4	Trans. arruntak.	4.825.267,80
5	Ondare sarrerak.	243.400,00			--
6	Inb. Besterenganatzea.	291.200,00	6	Inbertsio errealak	4.373.311,49
7	Kapital transferentziak	1.266.204,49	7	Kapital transferentziak	820.045,88
Diru-sarrerak, guztira (1-7 Kap.)		34.195.323,64	Gastuak, guztira (1-7 Kap.)		34.182.935,20
<b>Defizita.</b>			<b>Superabita.</b>		<b>12.388,44</b>
8	- Finantza-aktiboak	115.301,00	8	- Finantza-aktiboak	290.301,00
9	Finantza-pasiboak.	1.218.479,97	9	Finantza-pasiboak.	1.055.868,41
Finantza-sarrerak, guztira.		1.333.780,97	Finantza-gastuak, guztira.		1.346.169,41
<b>Diru-sareren Aurrekontua, guztira.</b>		<b>35.529.104,61</b>	<b>Gastuen Aurrekontua, guztira.</b>		<b>35.529.104,61</b>

2014ko aurrekontuaren proiektuak **12.388,44 euroko superabita** du Europako Kontuen Sistemaren (SEC) arabera. Ondorio horietarako, gerora doiketa egitea eskatuko lukeen eragiketa esanguratsurik ez denez aurreikusten, kalkulu hori -aurreko laukian ikusten den bezala- sarreretako 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuetako 1etik 7ra bitartekoen artean dagoen aldea edo diferentzia bezala islatu da, eta hori dena bateratutako terminoetan (Udala gehi Organismo Autonomoak).

**2014. urterako legeak ezarritako helburua zero defizita izanik, beraz, bete egiten da egonkortasunaren helburua.**

**2.- Zor publikoaren helburua.(2013ko likidatuko eskubide arruntei buruz)**

Datuak, 2014.12.31rako aurreikusitako Zor biziaren kalkulua ateratzekoak eta Udalaren eta Erakunde Autonomoen datu kontsolidatuak edo bateratuak.

2014ko abenduaren 31rako aurreikusitako maileguren zorra (2014ko aurrekontuaren mailegu berriaren aurreikuspena sartu gabe, printzipioz ez da sinatu behar eta) 3.303.542,64 €

2013ko likidazioaren ohiko diru-sarrerak (zalantzazko kobrantzei buruzko doiketa egin gabe) 31.133.936,05 €

$$\text{Zorraren portzentajea:} = \frac{3.303.542,64}{31.133.936,05} \times 100 = \mathbf{10,61\%}$$

2014ko abenduaren 31n, goian esandako erakunde edo entitate horien zor bizia 2013an likidatutako diru-sarrera arrunten % 10,61 koa izatea aurreikusten da. Kalkulu hori egiteko, 2013ko abenduaren

31n indarrean zeuden eragiketa guztiei zegokien zor biziaren zenbatekotik abiatu gara. Horri kendu egin zaizkio 2014ko aurreikusitako amortizazioak.

2014. urterako legeak ezarritako helburua da magnitude hori % 95etik beheragokoa izatea.

**Beraz, 2014. urterako Aurrekontuaren proiektuak bete egiten du zor publikoaren helburua.**

### 3.- Aurrezkia.

(Udalaren eta Erakunde Autonomoen likidazioen datu kontsolidatuak edo bateratuak).

SARRERA ARRUNTA	ESKUBIDE AITORTUAK	GASTU ARRUNTA	OBLIGAZIO AITORTUAK
1. Zuzeneko zergak.	7.614.954,01	1. Pertsonal Gastuak	10.471.425,83
2. Zeharkako zergak.	470.938,28	2. Gastuak. Gastuak, ondasun eta zerbitzuetan	11.539.255,86
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	8.308.117,96	3. Beste finantza-gastu batzuk (Organismo Autonomoen gastuak).	482,72
4. Transferentzia arruntak.	14.537.503,89	4. Transferentzia arruntak.	4.274.473,58
5. Ondare sarrerak.	202.421,91		
	<b>31.133.936,05</b>		<b>26.285.637,99</b>
		3. Interesak	54.253,47
		9. Maileguen amortizazioa (*)	2.312.649,04
			<b>2.366.902,51</b>

(\*) kopuru horretan sartu da UFFFren 2009ko saldo negatiboaren itzulketa, berez maileguekin zerikusia ez daukana eta 2013tik aurrera guttiz kitatuta gelditzen dena

**Aurrezki gordina:**  $31.133.936,05 - 26.285.637,99 = 4.848.298,06\text{€}$

**Aurrezki garbia:** Aurrezki gordina – zorraren urteko karga.

Finantza-kargen ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordinaren zatia islatzen du. Udalak, bere baliabideekin inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna adierazten du. Horrek ematen digu baita nolakoa den zorpetze-gaitasunaren neurria. Aldekoa baldin bada, etorkizuneko eragiketen finantza-kargei aurre egiteko tartea izango dugu.

**Aurrezki garbiaren balio absolutua:**  $4.848.298,06 - 2.366.902,51 = 2.481.395,55$

**Aurrezki garbiaren balio absolutua (2009ko UFFFren itzulketa sartu gabe):**  $4.848.298,06 - 1.341.071,44 = 3.507.226,62$

**Aurrezki garbiaren balio erlatiboa:**

$$\frac{2.481.395,55}{31.133.936,05} \times 100 = 7,97\%$$

**3.507.226,62**

Aurrezki garbiaren balio erlatiboa  
(2009ko UFFFren itzulketa sartu gabe): ----- x100 = 11,26%  
31.133.936,05

21/2003 Foru Arauaren 14.6. artikulua hauxe ezartzen du: “Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira”.

Finantza jasagarritasuna zeharo lotuta dago aurrezki garbi positibo eta nahikoa izatearekin, zorpetze berriak eta inbertsio-gastu berriak egin ahal izateko.

Dugun zorpetze-mailak (% 10,61) tarte handia uzten digu zor-eragiketa berrietarako, baina ezingo da inoiz horrelakorik kontratatu, kontratu berriek urtero sortuko lituzketen finantza-kargak etorkizunean ordaintzen utziko lukeen aurrezki garbi bat ez badago.

#### 4.- Diruzaintzako gerakina.

Ondoko lauki honetan agertzen den bezala, Udalak eta Erakunde autonomoek 2013. urteko likidazioa Diruzaintzako Gerakin positiboekin itxi dute. Konkretuki, Organismoa Autonomoek ez dute emaitza ez positiborik ezta negatiborik ere, azken finean, Udalak beraien (Organismo Autonomoena) kontu-itxiera orekatua bermatzeko, beharrezkoa den besteko defiziterako ekarpena egiten baitu. Hori horrela, 2013ko diruzaintzako gerakina ondorengo taulan ikus dezakegu:

Deskripzioa .	Udala	Aukea	Iturbide
Diruzaintzako funts likidoa.	+ 3.235.736,51		
Kobratzeko dagoen saldoa.	+ 5.168.306,34		
Ordaintzeko dagoen saldoa.	- 3.995.215,29		
<b>Diruzaintzako gerakin gordina.</b>	<b>4.498.827,56</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
Kobragaitzak.	- 1.379.448,26	--	--
<b>Diruzaintzako gerakin garbia.</b>	<b>3.119.379,30</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

#### 5.- Ondorioak

Azterketa horretatik ondorio hauek ateratzen dira:

- 2014ko aurrekontuaren proiektuak **12.388,44 euroko superabita** du Europako Kontuen Sistemaren (SEC) arabera.
- 2014ko abenduaren 31n, txosten honen hasieran aipatu diren erakunde edo entitate horien **zor bizia** 2013an likidatutako diru-sarrerara arruntei buruz **% 10,61**koa izatea aurreikusten da.

- 2013. urteko likidazioa **Diruzaintzako Gerakin positibo batekin, 3.119.379,30 eurokoa, eta 3.507.226,62 euroko aurrezki garbi positibo batekin itxi da** (2009ko UFFFren saldo negatiboa kontuan hartu gabe).

**Aurreko datu horiek, orokorrean hartuta eta ezuste handiak izan ezean, Arrasateko Udal Administrazioaren etorkizunerako finantza jasangarritasuna egiaztatzen dute.**

1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua eta Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2013ko otsailaren 19an onartutako jarraibidearen 3. arauak ezarritakoaren arabera, txosten honek, udal osoko bilkurari azalduko zaiona, ekonomia eta finantza-plana ordeztuko du.”

## **8.- 2014/2015 IKASTURTERAKO AUKEA, INGURUGIRO ESKOLA ETA EUSKALTEGIKO TASEN ALDAKETA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA, ETA UARCAPEKO PILOTALEKUA ALOKATZEAN TARIFA BEREZIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK ONTZAT EMATEA.(2014RBAR0022)**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

%AUKEA Kirol Erakundeak, Ingurugiro Eskolak eta Udal Euskaltegiak 2014/15 ikasturterako hainbat zerbitzuren tasak aldatzeko proposamena bidali dute. Ikasturteko izaera dituzten zerbitzuak dira, eta horregatik proposatzen da tasa berriak irailean indarrean sartzea.

Bidalitako proposamen desberdinen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- AUKEA: 2014/15 ikasturteko kirol ekintzen prezioak % 0,6 igotzea proposatzen du, urtetik urterako (apirila) KPIren igoera aplikatuz.
- Ingurugiro Eskola: 2014ko irailetik 2015eko abuztua bitarteko epealdirako, egonaldien prezioan % 0,6ko gehikuntza aplikatzea (2013ko KPIren arabera).
- Euskategia: Prezioak daudenetan mantentzea proposatzen da, KPI aplikatu gabe. Horretaz gain, bizpahiru egokitzapen egitea proposatzen du Euskara Batzordeak.

Horretaz gain, Kultura Saila eta AUKEAtik Uarkape Udal Pilotalekua kirol helburuetarako ez diren ekintzetarako tarifa berezien proposamena igorri da.

Indarrean dagoen legeriaren babesean, Ogasun Batzordeak, tasak aldatzeko proposamena aztertu ondoren, akordio hau onartzea proposatzen dio Udalbatzarrari:

1.- Behin-behinekoz, 2014/15 ikasturterako AUKEA, Ingurugiro eskola eta Euskaltegioko tasen aldaketa ontzat ematea, honako hauetan datzana:

a) **UARKAPE PILOTALEKUAREN ALOKAIRUA – KIROL HELBURUETARAKO EZ DIREN ERABILERAK:**

- Uarkapeko kirol helburuetarako ez den erabilera:

Alokairu tasa ordaindu beharrean soilik ekintzak eragiten dituen gastuak ordainduko dituzte erabiltzaileek kasu hauetan:

- 560 euro/eguneko (lurzoruan gomak jarri eta kendu barne).
- 260 euro/eguneko (lurzoruan gomak jarri eta kendu antolatzaileak egiten badu).

A) Pertsona judikoeak, **kasuen arabera:**

1. - Irabazi asmorik ez dutenak.  
- Jendeari oro har edo ez irekitako jarduerarako denean eskaera.  
- Haien jardueraren berezko zerbitzuak beste batzuei kobratzen ez dieten entitateak direnean.

2.- Irabazi asmorik ez dutenak.  
- Haien jardueraren berezko zerbitzuak beste batzuei kobratzen dieten entitateak direnean. (ez da joko beste batzuei kobratu izana musika, euskara, folklore, kirol edo ongintza jarduerekin lotutako erakundeei egiten zaizkienean ekarpenak)  
- Gizarte, kultura, onura edo antzeko izaerako ekintzetarako eskaera, haien jarduerakoak ez direnean.  
- Jendeari oro har irekitako jarduera baterako eskaera denean.

3.- Irabazi asmoa duten erakundeak.  
-Gizarte, kultura, onura edo antzeko izaerako ekintzetarako eskaera, haien jarduerakoak ez direnean.  
-Jendeari irekita.

B) Pertsona fisikoeak, kasuen arabera:

1.- Gizarte, kultura, onura edo antzeko izaerako ekintzetarako eskaera.  
-Jendeari oro har irekitako jarduera baterako eskaera denean.  
2. -Izaera ekonomikoa duen jarduera baterako eskaera denean.  
-Irabazteko asmorik gabeko helburua.  
-Jendeari oro har irekitako jarduera baterako eskaera denean.

<b>1. BLOKEA:</b>	
Running, patinajea, nordic walking (2 egun)	27,25 €/hileko
<b>2. BLOKEA:</b>	
Spinning, Bosu-tono, balance-ak, zumba, aquagym, aquarunning, haurdun acuarela, umesport, luzaketak airean (2 egun)	31,15 €/hileko
<b>3. BLOKEA:</b>	
Hipopresiboak, pilates, yoga (2 egun)	38,40 €/hileko
<b>4. BLOKEA:</b>	
K-STRECH (egun 1)	40,00 €/hileko
<b>5. BLOKEA:</b>	
Gimnasia egokitua, igeriketa egokitua (egun 1)	23,50 €/hileko
Gimnasia egokitua, igeriketa egokitua (2 egun)	39,80 €/hileko
<b>6. BLOKEA:</b>	
Senior	14,00 €/hileko
<b>7. BLOKEA:</b>	
Gazte jarduerak: gaztespinning, gaztezumba, yogazte (2 egun)	% 50/hileko
<b>8. BLOKEA:</b>	
Express-jarduerak (ordu erdi/astean 2 egun)	% 60/hileko
Egun bateko jarduerak (ordu bat/astean egun 1)	% 60/hileko
<b>9. UR JARDUERAK</b>	
Haurtxoak (0-4 urte) astean 2 egun (30 minutuko saioak)	31,15 €/hileko
Umeak igeriketa (45 minutu – 2 egun)	21,00 €/hileko
Helduak igeriketa (45 minutu – 2 egun)	25,00 €/hileko
<b>EZ ABONATUAK</b>	<b>Ez abonatuak</b>
Orokorrean (astean 2 saio) (iraupena edozein dela)	+ 10 €/hileko
Astean saio bakarra	+ 6 €/hileko
Erakunde, Ikastetxe edo antolatutako elkarte batek aparteko ekintza bat antolatzea eskatu ezkerreko, ikastaroaren prezioarekiko...	+ 2,06 €/pertsona eta ikastaroko
<b>BESTE BATZUK</b>	
Ekintza berriak antolatzen direnean eta onartutako prezio publikoetan antzerako ekintzak ez daudenean...	45,00 €/orduko
2. ekintzatik aurrera, ekintzetako bat bi eguneko izan behar da	% 50a

**c) UDAL EUSKALTEGIAREN ZERBITZUA EMATEA**

1.- Ohiko ikasleak, eskola orduko ..... 1,23 €



---

**Esp.-kodea: 2014SAPL0007**

---

2.- Enpresetako banakako ikasleei, orduko .....	1,48 €
3.- Enpresetako taldeak (gutxienez 8 ikasle), ikasleko eta orduko enpresatan emanez gero (materiala eta kilometrajeaz gain) .....	1,48 €
4.- Enpresetako taldeak, diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak (materiala eta kilometrajeaz gain).....	90,52 €
5.- Autoikaskuntza programa, ikasturteko .....	474
€/ikasturteko	
6.- Modalitate mistoa: eskola presentzial gutxiago baina Autoikaskuntzarekin €/ikasturteko	474
7.- Ume eta nerabe etorkinentzako euskara errefortzuak .....	21
€/ikasturteko	
8.- AISA programa berezia (60 ordu) .....	26 €
9.- 4. maila, eskola orduko .....	1,55 €

*\*\* Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzen duten herritarrak salbuestea Udal Enskaltegiko tasak ordaintzetik.*

*\*\* Langabetu, ikasle eta jubilatuei (beste lanik ez duten pentsionistak, alegia) %50eko murrizketa aplikatzea tasa hauetan: obiko ikasleak, autoikaskuntza programa eta modalitate mistoa*

*\*\* 50 ordutik beherako ikastaroetan ez dira aplikatuko murrizketa horiek.*

#### **d) INGURUGIRO HEZKUNTZARI BURUZKO JARDUERAK (EMA)**

a) Herriko ikastetxeak ez diren Ikastetxeentzako egonaldien prezioak pertsonako:

**2014/15**

- Egun bakoitzeko 7,70 Euro

b) Herriko ikastetxeentzako egonaldien prezioak pertsonako (Hezkuntza Zerbitzurako eta lojamendurako %50eko hobaria):

**2014/15**

- Egun bakoitzeko 3,85 Euro

c) Beste talde batzuk (egonaldi bereziak), pertsona eta eguneko ..... 8,75 Euro

2.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu tasak aldatzeko espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten Idazkaritzako bulegoan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita 30 asteguneko epean.

3.- Behin-behineko akordioen kontra erreklamaziorik aurkeztu ezean, eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikulua 3. atalean ezarritakoaren arabera, behin-betiko onartutzat joko da akordio hau.”

## **9.- ARRASATEKO UDALA ETA FIARE ELKARTEAREN ARTEAN ELKARLANERAKO HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA.(2014DKON003)**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“FIARE 2006. urtean eraturako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. EAEko hirugarren sektorean eta gizarte eta elkartasun ekonomian diharduten pertsonak eta erakundeak biltzen ditu, honako helburu hau lortze aldera: “EAEko finantza-bitartekaritza etikoko proposamen zehatz bat bertan ezartzeko lan egitea eta laguntza ematea, behar diren laguntzak eta fondoak lortuz, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, EAEko Fiare Proiektuak emaitza ona izan dezan”.

Gure kasuan, Arrasateko Udalaren eta FIARE Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena da, udalak Fiare Proiektuan erakunde laguntzaile jardun dezan. Horri dagokionez, banku etikoen irizpideei jarraiki jardungo duen kreditu-kooperatiba bat sortzeko helburua du adierazitako proiektuak.

Arrasateko Udalak eta Euskal Autonomia Erkidegoan Fiare proiektua laguntzeko Elkarteak (aurrerantzean FIARE Elkarte) sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena aztertu da, ondorengo ezaugarri nagusiak dituen:

- FIARE Elkarteak Arrasateko Udaletik jasotako dirua erabiliko du Erakunde Laguntzailearen izenean sozietate-kapitalaren partaidetzak erosteko, eratuko den estatu mailako kooperatiban. Erosketa gertatu arte dirua gordailuan jarriko da, beste helburu baterako erabil ez dadin.
- Arrasateko Udalak edozein unetan suntziaz ahal izango du elkarlanerako hitzarmen hau, eta FIARE Elkarteak itzuli egin beharko du diru-kopuru osoa.
- FIARE Elkarteak ondorengo konpromisoa hartzen du Arrasateko Udalarekiko:
  - Euskal Autonomia Erkidegoko herritar nahiz erakundearen artean, estatuko kooperatibaren sendotzea kudeatu eta sustatzea, ondoren, kreditu-kooperatiba europarra era dadin.

- Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan, behar adinako sozietate-kapitala batzeko ahaleginak egitea, gizarte-oinarri zabala oso-osorik abian jar dadin.
- Estatuko kooperatiba sendotzea. Kreditu-kooperatiba horrek banku etikoaren irizpideekin bat jardungo du, eta , horretarako, honen moduko hitzarmenak sinatuko dira
- Erakunde Laguntzaile guztiek ekarritako diruaren %100 aipatu kooperatibaren sozietate-kapitalari ekartzea, betiere Erakunde Laguntzaileak garaiz eta forma egokian kooperatibaren bazkide izateko eskaria egin eta gero.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Ogasun Batzordeak ondorengo akordio proposamena egiten dio Udal Plenoari:

1.- Arrasateko Udala eta FIARE Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea, udalak Fiare Proiektuan erakunde laguntzaile gisa jardun dezan. Horri dagokionez, Banku etikoen irizpideei jarraiki jardungo duen kreditu-kooperatiba bat sortzeko helburua du adierazitako proiektuak. Halaber, ahalmena ematea Alkateari beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

2.- 1.800 euroko ekarpena egitea. Diru ekarpen horrekin Arrasateko Udalaren izenean estatu-eremuko kreditu-kooperatiban kapital sozialeko partaidetzak erosiko dira.

3.- Diru-kopuru hori oso-osorik erabiltzea Arrasateko Udalaren izenean sozietate-kapitalaren partaidetzak erosteko, estatuko kooperatiba horretan. Erosketa hori gertatu arte, FIARE ELKARTEAREN konpromisoa da diru-kopurua gordailuan jartzea, eta, horretarako, bere ustez egoki den finantza-tresna erabiliko du. FIARE ELKARTEAREN betebeharra da gordailu horren baldintzak egokiak izatea, gordailupeko zenbatekoak beste helburu baterako erabil ez daitezela. FIARE ELKARTEAREN gobernu-organoak bere gain hartzen du hori bermatzeko ardura. Alderdi biek itundu dute FIERA ELKARTEAK bere helburuetarako erabili ahal izatea gordailu honekin lortutako ordainsaria.”

## **10.- 2014 URTEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA MARTXOAREN 31KO DATAZ (2014RBAR0021)**

Udal Plenoak Ogasun Batzordearen ondoko diktamenaren berri hartu du:

“ 2014ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2014-03-31ri buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

### **A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)**

*A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)*

---

Esp.-kodea: 2014SAPL0007

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 2014-03- 31N
2.268,57	1.898,64		369,93
	83,69%		16,31%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2013KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKINA
1.647,83	1.646,19	928,48	340,58	83,68	1.556,86
100%	99,90%	56,34%	20,66%	5,07%	94,48%

A.3 ó 2014KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTAK OA (exekutaturik)	ORDAINDUA	ERABILGARRI
I Pertsonalaren gastuak	9.566,19	2.123,18	2.123,18	2.123,18	1.415,64	7.443,01
	100%	22,19%	22,19%	22,19%	14,80%	77,81%
II Ondas. eta zerb. erost.	9.780,16	5.376,73	5.158,78	2.118,74	756,48	4.403,43
	100%	54,97%	52,74%	21,66%	7,73%	45,03%
III Maileguen inters.	64,48	10,85	10,85	10,85	10,85	53,65
	100%	16,82%	16,82%	16,82%	16,82%	83,18%
IV Transferentzia korronteak	5.799,55	1.127,57	1.124,54	1.046,62	732,93	4.671,98
	100%	19,44%	19,39%	18,04%	12,63%	80,56%
VI Inbertsioak	4.376,31	1.255,42	383,52	209,69	9,75	3.120,89
	100%	28,68%	8,76%	4,79%	0,22%	71,32%
VII Kapit. transferentziak	820,05	263,21	263,21	263,21	27,89	556,84
	100%	32,09%	32,09%	32,09%	3,40%	67,91%
VIII .Finant. aktib.	630,24	546,43	546,43	371,43	371,43	83,81%
	100%	86,70%	86,70%	58,93%	58,93%	13,30%
IX Mailegu amortz.	1.055,87	372,49	372,49	372,49	372,49	683,38
	100%	35,27%	35,27%	35,27%	35,27%	64,73%

Esp.-kodea: 2014SAPL0007

<b>URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>32.092,84</b>	<b>11.075,88</b>	<b>9.990,28</b>	<b>6.516,20</b>	<b>3.697,46</b>	<b>19.461,74</b>
	<b>100%</b>	<b>34,51%</b>	<b>31,13%</b>	<b>20,30%</b>	<b>11,52%</b>	<b>60,64%</b>
<b>URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>33.740,67</b>	<b>12.722,07</b>	<b>10.911,47</b>	<b>6.856,78</b>	<b>3.781,14</b>	<b>21.018,6</b>
	<b>100%</b>	<b>37,70%</b>	<b>32,33%</b>	<b>20,32%</b>	<b>11,20%</b>	<b>62,30%</b>

*A.4 6 DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)*

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
2015	428,79	157,36
		36,69%
2016	14,79	0
2017	14,79	0
2018	14,79	0
<b>GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK</b>	<b>473,15</b>	<b>157,36</b>
		<b>33,25%</b>

## B È DIRU SARRERAK

*B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)*

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2014-03-31n
4.410,95	1.194,68	52,92	3.216,21
100%	27,08%	0,01%	72,91%

## B. 3 2014KO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru- sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.792,50	1.820,64	128,84	1.691,80	-5.971,86
	100%	23,36%	7,07%	92,92%	-76,64%
II Zeharkako zergak	550	112,50	83,29	29,21	-437,50
	100%	20,45%	74,03%	25,96%	-79,55%
III Tasak eta prezioak	6.543,25	2.063,23	1.679,73	383,50	-4.480,02
	100%	31,53%	81,41%	18,58%	-68,47%
IV Transferentzia korronteak	13.734,77	3.596,70	3.168,39	428,31	10.138,07
	100%	26,18%	88,09%	11,90%	-73,82%
V Ondare. sarrerak	241,2	32,27	14,47	17,81	-208,93
	100%	13,38%	44,82%	55,17%	-86,62%
VI Inoren. errealak.	291,2	10,15	8,16	2,00	-281,05
	100%	3,48%	80,33%	19,66%	-96,52%
VII Kapit. transf.	1.266,20	1.086,40	1.035,23	51,17	-179,80
	100%	85,79%	95,29%	4,70%	-14,20%
VIII Finan. akt. aldak.	455,24	371,43	0,88	370,55	-83,81
	100%	81,59%	0,23%	99,76%	-18,415
IX Maileguak	1.218,48				-1.218,48
	100%				100%
<b>URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>31.080,85</b>	<b>9.093,32</b>	<b>6.118,99</b>	<b>2.974,33</b>	<b>-21.987,53</b>
	<b>100%</b>	<b>29,26%</b>	<b>67,29%</b>	<b>32,71%</b>	<b>-70,74%</b>
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2013KO LIKIDAZIOKOA	1.647,83				1.647,83

<b>URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA</b>	<b>33.740,67</b>	<b>9.093,32</b>	<b>6.118,99</b>	<b>2.974,33</b>	<b>-24.647,35</b>
	100%	26,95%	67,29%	32,70%	-73,05%

**11.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO 1. HIRUHILABETEAN  
ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZKO  
INFORMAZIOA.(2014RBAR0020)**

Udal Plenoak Ogasun Batzordearen ondoko diktamenaren berri hartu du:

“2014ko Aurrekontua Betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedientei buruzko informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun Batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2014ko 1. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udalbatzarrari:

- Alkatetzaren ebazpena, 2013-12-13koa, 2014ko ekaineko ordainketa bereziaren kopuru garbiaren besteko aurrerakina urtarrilean udal langilegoari ordaintzea onartzen duena, eta, horren ondorioz, inplizituki, “1.0600.833.121.00.00 – Pertsonalaren aurrerakinak” kontu-saila 365.235,09 €ko zenbatekoan (ordaindutako kopuru garbia) handitzen dela, gastu hori diru-sarreretako “2.0600.833.000.00.01 – Pertsonalaren aurrerakinak itzulketa”, kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean, finantzatu delarik.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-01-27koa, onartzen duena 9.000 €-an handitzea “1.0812.211.511.06.00 – Ferixalekuko igogailuaren konponketak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.226.190.00.99 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-02-03koa, “Polmetasa” eraikinaren inguruan arriskuak saihesteko urgentziatzko neurriak onartzen dituen, eta horrekin batera “1.0500.226.439.00.00 – Exekuzio subsidiarioa” kontu saila handitzea onartzen du, 16.000€-ko zenbatekoan, eta gastu hori finantzatuko da diru-sarreretako “2.0500.380.000.00.01 – Exekuzio subsidiarioko itzulketak” kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-02-17koa, onartzen duena 3.000 €-an handitzea “1.0800.601.511.01.01 – Arrasate Irekia-Merkagune” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.226.190.00.99 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-03-17koa, 2013ko aurrekontuaren likidazioa eta 2014 urteko aurrekontura kreditu txertatuak bidaltzea onartzen duena, guztira kontusail desberdinetan 1.647.825,57euroko gehikuntza suposatzen duelarik.”

## **12.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA ONARTZEA.(2013EEUS0014)**

Udal Plenoak, aho batez, Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Í Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) datozen hamar urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri eta proposamenak jasotzen ditu. Hartara, *Euskara 21* ekimenean adierazitako oinarri eta gidalerroen aplikazio praktikoa izan nahi du. Bestalde, esan beharra dago Eusko Legebiltzarrak 1999an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ondorengoa dela ESEP.

Arrasateko Udalak 2006an onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta, horrela, ordura arte urteetan abian gauzatutako proiektuak berretsi eta egitasmo berriak jarri zituen martxan. Euskararen erabilera normalizatzeko Udalak sustatutako egitasmo, proiektu eta ekintzak jaso zituen plan horrek eta, nolabait esatearren, Udalaren hizkuntza politika osatzen zuten akordioak bildu zituen. Hauxe zen planaren helburua: hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko; eta, gainera, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak ematea.

Goian esan bezala, bada, ESEP EBPNren ondorengoa da. Izan ere, 2008an Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak EBPN berrikustea proposatu zuen eta, hartarako, lehenengo eta behin, *Euskara 21* gogoeta prozesua abiatu zuen. Ondoren, gogoeta horren ondorioz, 2011ko apirilean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak* izeneko txostena aurkeztu zuen. Azkenik, Euskararen Aholku Batzordeak, 2012ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ESEP onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzak 2012ko uztailaren 24an.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren IRATI aplikazioak esparruz esparru proposatutako neurriak eta ekintzak abiapuntu hartuta osatu da Arrasateko Udalaren ESEP. Hona hemen, bada, proposamena:

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren IRATI aplikazioak esparruz esparru proposatutako neurriak eta ekintzak abiapuntu hartuta osatu du Euskara Zerbitzuak Arrasateko Udalaren ESEP. Hortaz, bada, Euskara Batzordeak hau proposatzen du:

- 1) Arrasateko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartzea.



2) Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.”

### **13.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA, MEDIANTE LA CUAL SE RECHAZA LA REFORMA DEL ÍNDICE DE REVALORIZACIÓN DE LAS PENSIONES.(2014SMOZ0009)**

El Secretario da lectura a la siguiente moción presentada por el Grupo Municipal PSE-EE:

“Estamos en absoluto desacuerdo con la decisión del gobierno de suprimir de forma unilateral la fórmula de revalorización de pensiones públicas que hasta ahora se aplicaba en nuestro país, imponiendo una nueva fórmula sin haber dialogado previamente con el resto de partidos políticos, organizaciones empresariales y sindicales, y rompiendo así el procedimiento establecido en el Pacto de Toledo para acometer cualquier reforma profunda en el sistema de Seguridad Social sobre la base previa del diálogo y el acuerdo amplio.

La nueva fórmula para calcular la revalorización de pensiones instaurada a partir de la Ley 23/2013 no garantiza el mantenimiento del poder adquisitivo de las pensiones. De hecho esta nueva fórmula supondrá una pérdida de poder adquisitivo de las pensiones de entre un 14% y hasta un 26% durante los próximos 15 años.

La revalorización de las pensiones para 2014, limitada a un 0,25%, viene a consolidar una pérdida de poder adquisitivo que comenzó a generarse con la decisión de 2012 de no actualizar las pensiones.

Entre 2012 y 2013 las pensiones ya han consolidado una pérdida de poder adquisitivo, de modo que los incrementos realizados en las cuantías, no han sido suficientes como para compensar la evolución de la inflación. Así, en estos años las pensiones inferiores a 1.000 euros, (que son el 66% del total) han perdido un 0,1% y las pensiones superiores a 1.000 euros (el 33% del total.) han perdido un 1,1%.

Sumado a todo lo anterior, el incremento aprobado para 2014 supondrá una pérdida adicional de poder adquisitivo de al menos 1,25% para todas las pensiones sin distinción de cuantías, si tenemos en cuenta que el incremento ha sido de tan sólo el 0,25% y la previsión de inflación del propio gobierno es del 1,5%.

La pérdida de poder adquisitivo de las pensiones supone el empobrecimiento especialmente a quienes tienen ya de por sí una pensión baja, recordemos que el 54% de las pensiones tienen una cuantía inferior al Salario Mínimo Interprofesional, y una limitación grave de la calidad de vida de la mayoría de hogares que tienen en un jubilado, cerca del 27% del total, la principal o única fuente de ingresos. Y, adicionalmente, la pérdida de poder adquisitivo de las pensiones afecta gravemente al mantenimiento del empleo y la actividad económica, ya que estas rentas tienen como principal destino el consumo y la demanda interna de bienes y servicios en nuestro país.

Creemos que el Gobierno cede a las exigencias del núcleo más conservador de la

Comisión Europea y de los mercados, cuya actividad especulativa sigue provocando que la economía productiva no se recupere y que los trabajadores/as, los pensionistas y jubilados sigan perdiendo poder adquisitivo., utilizando las pensiones públicas como contraprestación exigida para otros fines ajenos al de su sostenibilidad y el BOE para congelar las retribuciones de .los que dependen directamente de sus decisiones como los empleados públicos, pensionistas, desempleados, trabajadores que perciben el salario mínimo, quienes perciben el IPREM, etc.,mientras que, por el contrario, suben los precios de servicios públicos, que también están sometidos a su intervención.

Baste señalar algunos ejemplos de todo ello: desde 2011 los medicamentos incrementaron su precio el 20,9% como consecuencia de la exclusión de un número importante de medicamentos de la financiación pública; el transporte público urbano sufrió una subida del 14,6%; la calefacción, la luz y el agua subieron en estos dos años más del 11,4% consecuencia en gran medida de los sucesivos "tarifazos" eléctricos.

El camino tiene que ser el de asegurar la calidad de vida de la población mayor y poner fin a las injustas políticas de austeridad, como vía para una salida de la crisis de manera democrática y sostenible económica y socialmente.

Por eso, exigimos al Gobierno que rectifique de inmediato y regrese al marco de diálogo y acuerdo del Pacto de Toledo, pues las medidas adoptadas fuera de éste no han hecho sino perjudicar a las personas más débiles, sin que hayan actuado en los verdaderos retos que tiene el sistema de pensiones: la necesidad de adoptar medidas de mejora de ingresos, lucha contra el fraude fiscal y laboral, surgimiento de la economía sumergida.

Por todo ello, sometemos a criterio del Pleno Municipal la siguiente

### **MOCIÓN**

- 1.- Rechazar la reforma impuesta al margen del Pacto de Toledo en la Ley 23/2013, de 23 de diciembre, reguladora del Factor de Sostenibilidad y del índice de Revalorización del Sistema de Pensiones de la Seguridad Social, e instar al Gobierno de la Nación a que la rectifique.
- 2.- Instar al Gobierno de Estado a que vuelva al Pacto de Toledo y, en este marco, ponga las medidas necesarias para que los pensionistas y jubilados recuperen una fórmula que garantice el mantenimiento del poder adquisitivo de las pensiones públicas, y la sostenibilidad del sistema, una medida que por justicia les corresponde.
- 3.- Acordar dar traslado de dicha resolución al Gobierno del Estado y al Ministerio de Empleo y Seguridad Social."

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik?

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Gu ados agertzen gara Alderdi Sozialistak egiten dituen eskaerekin eta protestarekin, uste dugulako arrazoia daukiela. Baina abstenitu egingo gara. Uste dugulako hau Estatu Espainolaren asuntu bat dela eta Estatu mailako neurri batzuk direla. Egia esanda neurri hauek kalte izugarria sortu izan dute espainiar gizartean, mozioan esaten dan bezala, eta ez naiz asko luzatuko eta bueno esaten dut abstenitu egingo garela. Guk herri honen burujabetzaren alde gaude burujabetzan sinisten dugulakoeta horregatik guk ulertzen dugulako sistema propio bat eduki behar dugula pentsioen inguruan eta beste gizarte prestakuntzan inguruan eta eduki behar dugula independentzia erabakitzekeo zer motako erabakiak hartu behar dien prestakuntza honen inguruan.

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Yo espero que están ustedes representados en las Cortes Generales, allí si tomen parte cuando se trasladen este tipo de cuestiones en contra de este tipo de medidas del gobierno. Por otro lado, si me gustaría aunque no este, llamar la atención a la concejala del PP que es quien no nos va a poder responder a nada de esto.

Si se lee perfectamente la moción se habla de ruptura de acuerdo amplio, perdida de poder adquisitivo, de cuantías menores al salario mínimo interprofesional, tarifazos yo creo que va a quedar en el aire y yo creo que hasta el final de legislatura y la responsabilidad es de la señora Lamarain que no aparece a los plenos de no poder responder a este tipo de cuestiones.

Yo creo que quien debe de dar respuesta a esto es una persona que esta elegida por el pueblo de Arrasate y no está. Por este lado, nosotros desde el grupo municipal si dar un tirón de orejas al PP por no aparecer aquí, porque creemos que en este tipo de cuestiones es cuando hay que dar la cara por los ciudadanos y dar respuesta a cuestiones que afectan directamente además a las personas que más lo necesitan y que mas están sufriendo la crisis económica que son nuestros mayores.

Yo creo que esta bastante claro el resto de la argumentación y vuelvo a retirar que un fuerte tirón de orejas a la representante del PP que no aparece a ninguno de estos plenos.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **Mozioa ONARTUA izan da.**

<b>Bertaratutakoak</b>	<b>16</b>
<b>Aldeko botuak:</b>	<b>6 EAJ-PNV (3) eta PSE-EE (3)</b>
<b>Aurkako botuak:</b>	<b>0</b>
<b>Abstentzioak</b>	<b>10 BILDU (9) eta ARALAR (1)</b>

## **14.- MOZIOA, BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKOA (2014SMOZ0013)**

Idazkariak BILDU eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako ondoko mozioa irakurri du:

“Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 2512013 Legea onartu egin zen: Lege honek EAeko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion —eta ondorioz Gipuzkoako KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dado, eta beraz, honen garapena zalantzaz beteta daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi ,egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu ARRASATEKO Udaleko Udalbatzak eztabaidatu eta onartu ditzan:

1- ARRASATEKO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarí eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- ARRASATEKO Udalak, korporazio fundatzaile diren Donostiako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarí eta Kutxako Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkari-tza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, lanera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen • marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- ARRASATEKO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarí eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAKo langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo

Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- ARRASATEKO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein privatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %11koa izaten jarraituko duelarik.

5-ARRASATEKO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6-ARRASATEKO Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAeko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundi eta Biltzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAKo Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAKo Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politikoko guztiei helaraziko."

Ondoren, Idazkariak EAJ-PNV udal taldeak gai horri buruz aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurri du:

" 1.- Udalbatzak bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean izandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.

2.- Udalbatza, Espainiako finantza sisteman gertatzen ari den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legea betetzeko, eta, alde horretatik, gobernu organoei eskatzen die beharrezko izapideei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen arabera gertatzeko.

3.- Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aurrezki kutxei buruzko euskal legedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko lege propioa gara dezala, legegintzako izapidetzeak ahalbidetzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan.

4.- Udaltzakoak, Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan izango duen ordezkartzaren bidez, eta Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio gauza bera egin dezala.

5.- Udaltzakoak Kutxako gobernu organoari eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetuz ordezkatzuta egoteko hastapenarekin bat.

6.- Udaltzakoak adierazten du Kutxaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea lurralderekiko konpromisoa irizpide erabilita, ekonomi eta gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, lehentasuntzat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurraldearekiko konpromisoaren erakusgarri, Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela. “

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Interbentziorik?

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):** Arratsaldeon. Inork ez deixela dudan jarri Kutxa koherentea izango dela eta Gipuzkoaren aurrerapen ekonomikoaren eta sozialaren aldeko bere konpromisoarekin jarraituko duela. Kutxak krisi honi aurre egiten dabil estatu gutxitan aurre egin dotzan kutxarik onena baina kutxa pribatua da. Pribatua dana ezin da pribatizatu.

Bueltaka zabitze hitz horrekin aurrera eta atzera, ze gure dozue holako polemika baten sartu guzti hau eta gero be bai argi eduki behar dana da irabazi gabe ez dagola gizarte ekintzarik. Etekinik ez daukan organismo batek ez dauka inolako baliabiderik gizarte ekintzara bideratzeko.

BILDUren beste koherentzia falta bat da, alde batetik esaten duzue Kutxaren alde zauzela, Kutxa defendatu nahi duzuela baina adibider 2013an zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak banketxeekin negoziatu dituen 130 milioetatik 130 milioetatik euro bat ez dotza eman Kutxabankei. Dana gehixena Bankiakin negoziatu dau BILDUK nahiago dau entitate finantziario espainol batekin tratuak eduki Kutxakin baino eta hori zuen beste koherentzi falta bat.

Hori guztia lotsagarria pentsatzen jaku, benetan lotsagarria.

**ARITZ ARRIETA (PSE-EE):** Gu mozio alternatiboaren alde gauz, oso antzerakoa delako beste instituzioe batzuetan aprobatutako mozioekin. Orduan printzipioz gobernu taldeak aurkeztutako mozioaren kontra bozkaturiko dugu eta gero aurrera irtetzen badau bestearen alde.

**JOXE ETXEBERRIA (ARALAR):** Argi dago banku publiko eta sozial batek duen garrantzia haren baliabideak sektore produktiboetara eta ez espekulatiboetara bideratuz gero, aberastasuna sortu eta Euskal Herriaren garapenean laguntzen baitu. Hori hala izanik kontuan hartu behar genuke gure herrian estrategikoak diren politika eta sektoreetara bideratzeko baliabideak kudeatu beharko lituzkeela banku publikoan lurraldeetariko atxikimendua eta bere funtzio soziala betez.

Jakin badakigu Nafarroako Kutxa edo CAN Banca Civica sartu pribatizatu eta denok ikusi dugu nola bukatu den ez dezagun Kutxarekin berdina egin, edo berdina egin dezaten utzi. Edozein herrik bere etorkizuna eraikitzeke behar duen kontrol publiko eta soziala duen finantza tresna aldarrikatu eta bermatu behar da.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Labur erantzuteko Ibonei. Gizarte lana eta gizarte ekintza esaten duzunean Kutxaren inguruan nik ez dakit ziur eta datu bat bota biok jakin abrik ziur zein dan. Nik uste dut etekinak izan direla azkenengoak Kutxabankekoak 48 milio. 48 milio horretatik gure Udaletxean beste sail batzuetan ezik, adibidez, gure Berdintasun sailean dirulaguntzak kendu dituzte eta esan digute hemendik aurrera ez dela emango euren ustetan ez daukalako larreiko etekin horretara bideratzeko eta da adibide oso zehatza. Gure udalari zuzenean eragiten diona.

Beste alde batetik, zuk esan duzun banketxe espanolekin tratetan gauela eta hau eta bestea Pleno honetan tratatu zan bere moentuan be bai gobernu organoen osaketan ze estrategia erabili zozuen eta ze trikimailu erabili zenituzten guk ez edukitzeko dagokigun representazioa eta publiko edo pribatuaren arteko ezberdinatsuna bere izaera juridikoan dago. Guk esaten dugunean bere izaera publikoa dela ez gabitz asmatzen hortarako bere izaera juridikoa estudiatu behar da zein dan. Estudiatu egin beharko duzu zuk.

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):** Bai Maider sentitzen dut, ni ez izatea abogadua zu zare moduan, ni ingenieroa naiz. Orduan nire barkamena eskatzen dotzut nire ezjakintasun juridikoagatik hori lehenengo eta behin.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Esan nahi dotzutena da ez dela entitate pribatu bat. Bakarrrik ikusi behar duzu zein dauen bere zuzendaritzan jakiteko ez dela pribatua.

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):** Orduan esan gurozu publikoa dela?

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Ez dotzut esplikau behar zein dan bere eraketa

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):** Ez da publikoa Mainer

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Bai berdin-berdina da. Da PNV modukoa berdin-berdina. Hor ez gara sartuko orain.

**IBON ARRUPE (EAJ-PNV):** Ez gara sartuko ze Kutxa ez da izan inoiz entitate publiko bat.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):** Beste interbentziorik? Bozketara pasatuko gara.

Bozketaren emaitza: **BILDU eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako Mozioa ONARTUA izan da.**

<b>Bertaratutakoak</b>	<b>16</b>
<b>Aldeko botuak:</b>	<b>10 BILDU (9) eta ARALAR (1)</b>
<b>Aurkako botuak:</b>	<b>6 EAJ-PNV (3) eta PSE-EE (3)</b>
<b>Abstentzioak</b>	

(Mozioa onartua izan denez, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa ez da bozkatu).

## **15.- MOZIOA, BILDU, EAJ-PNV ETA ARALAR UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKOA, EUSKAL SELEKZIOAREN OFIZIALTASUNARI BURUZKOA (2014SMOZ0011)**

Idazkariak BILDU, EAJ-PNV eta ARALAR udal taldeek aurkeztutako ondoko mozioa irakurri du:

“EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.



Bestalde, Gobernantza Demokratikoaren Institutuak (Globernance) Euskal Kirol Federazioek euskal kirol federatua ordezkatzearen bideragarritasun juridikoari buruz egindako txostenak ondorioztatzen du ez dagoela eragozpen juridikorik Estaturik gabeko nazio edo lurraldeetako federazioek nazioarteko federazioen parte izan daitezzen eta lehiaketa ofizialetan parte har dezaten. Hau da, Espainiako, Europako edo nazioarteko ordenamendu juridikoan ez dago euskal federazioen proiektio edo dimentsio internazionala debekatu edo eragotziko duen aginduzko araurik.

Beraz, ezintasun juridikoan baino, borondatean dago gakoa. Eta geurean, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiriari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

